

# Google, Apple eta euskara



## Nork ez du inoiz Google erabili? Sekuentzia honetan hauxe egingo duzu:

- Ikaskideei kontatuko diezu Google zertarako erabiltzen duzun eta zer hizkuntzatan.
- Maite Goni Huhezi Unibertsitateko irakasleari Googleri buruz egindako elkarrizketa ikusi, eta bitartean egiak eta gezurrak identifikatuko dituzu.
- Google konpainiari buruzko testu bat irakurri, eta bertako ideia berriak identifikatuko dituzu.
- Apple konpainiari gutun bat idatziko diozu.

IN BASQUE

## Google mintzamena

Irakurri elkarrizketa zati hau, eta jarri arreta letra etzanez idatzitako hitzei:



- Aizu, Jone, badakizu noiz sortu zen “Hertzainak” taldea?
- Ez, baina oraintxe bertan egingo dut bilaketa bat Interneten.
- Ene! zer bilatzaile erabiltzen duzu?
- Nik, “DuckDuckGo”. Zer ba? Onena da. Gainera, ezarpenetan publizitaterik ez erakusteko jar dezakezu.
- Egia da! Lehengo astean partekatu zuten Facebooken! Baina, Jone, galdera bat; sistema eragile guztiekin dabil?
- Bai, jauna. Hara, “Hertzainak” 1981ean sortu zen.

Google da gehien erabiltzen den bilatzailea. Binaka, azaldu elkarri honakoak:

- Zertarako erabiltzen dituzu Googleren zerbitzuak?
- Zer hizkuntzatan erabiltzen dituzu Googleren zerbitzuak? Zergatik?

# Googlek 18 urte bete ditu



Ikusi bideo hau eta bitartean esan hurrengo esaldiak egiak ala gezurrak diren:

**Ruben Abalenzat Google ordenagailua bera da**

Egia  Gezurra

**Ilaski Serranok gogoratzen du Google bako aroa**

Egia  Gezurra

**Maite Goñiren iritziz, ideia batek ekar ditzakeen ondorioak mugagabeak dira**

Egia  Gezurra

**Google bilatzailearen asmatzaileak unibertsitatean ari ziren ikasten munduko aberatsenen zerrendan sartu zirenean**

Egia  Gezurra

**Googlek egin zuen Android, alegia, gailu mugikorretan gehien erabiltzen den sistema eragilea**

Egia  Gezurra

**Doodleak dira, zerbait berezia gertatzen denean, bilatzailearen logoaren ordez jartzen dituzten marrazkiak**

Egia  Gezurra

**Donostiako danborrada egunean haren doodlea ezarri zuten bilatzailean**

Egia  Gezurra

**Maite Goñik Google unibertsoa esaten dio enpresa horren aplikazio multzoari**

Egia  Gezurra

## Irakurmena

Orain irakurri testu hau eta, ikusi berria duzun elkarrizketarekin konparatuta, identifikatu eta azpimarratu bertan agertzen diren ideia berriak.

**Google jainko garaikidea. Euskarari ekarpenik bai?**

Google gaur egungo jainkoa da. Edozer daki. Edonon agertzen da. Interneten informazioa bilatzeko bilatzailearik azkarrena eta osoena du. Mundu mailan, beste bilatzaileen aurretik ageri da nabarmen. Baina Google ez da bakarrik bilatzailea. Produktu ugari ditu, asko erabat doan gainera, besteak beste, Google Maps eta Street view, Posta zerbitzua, Google Drive, edota You Tube.

**Baina zein da Google-ren jokaera euskararekiko?**

Haren produktu gehienak euskaratuak ditu eta baita ondo euskaratuak ere.

Zuk hala aukeratuz gero, Google-ren produktu ikusgarri eta erabilgarri horiek euskaraz erabil ditzakezu. Asko mesfidati agertuko dira nazioarteko enpresa erraldoi amerikarraren aurrean, baina aitortu behar dugu, euskarari dagokionean behinik behin, nahiko pozik egon gaitzkeela.

Bestalde, nahiz eta jainko bat izan eta tresna oso erabilgarria izan, gauza asko egin behar izan ditu dagoen tokira ailegatzeko. Orain munduan dagoen enpresa garrantzitsuenetako bat da eta diru pila irabazten du urtean eskaintzen dituen milaka zerbitzuengatik. Orain daukan boterea lortzeko Googlek enpresa asko “jan” ditu horrek dakarren ondorioekin; milaka langileren lana desagerrarazi, etekin guztiak eurentzat soilik izan, lehia suntsitu... Horrez gain, zerbitzua hobetzeko dela esanez, gure mugimendu guztiak dakizki.

Google erabiltzeko kondizioetako bat bera gure informazio eta datuak gordetzeko ahalbidetzea da eta horri esker gure bilaketan arabera geure gustu eta afizioak jakin ditzake. Eta ez hori soilik, Google maps-i esker gure kokapena eta egunean egiten ditugun mugimenduak kontrolpean ditu. Edozein momentutan datu horiek esku txarretan jausiz gero, guri buruzko informazio, pasahitz eta kokapena edukiko lituzke. Horregatik, nahiz eta Google oso tresna erabilgarria izan eta euskararengatik gauza asko egin, ezin da ukatu agian botere eta datu gehiegi dauzkala eta horrek gure askatasuna jokoan jartzen duela. Berak hala nahi izanez gero, gure datuak edozein helburutarako erabili ahal izango lituzke.

Simon Arriola Zuzeu (moldatua).



# Idatzi gutuna Appleko arduradunei

## Egoera

Applek ez du euskara erabiltzen bere produktuetan. Hori dela-eta, Xabier Martinek Appleren sistemetan euskara erabiltzearen aldeko kanpaina abiatu du Change.org plataformaren bitartez. Nahi izanez gero, [hementxe](#) duzu artikulu bat informazio gehiagorekin.

## Egitekoa


Apple konpainiako Tim Cook zuzendari nagusiari gutun bat idatziko diozu (gutxienez 140 hitzekoa) eskatuz euskaraz ere emateko haien produktuak.

Gutxienez, honako ideietako hiru erabili behar dituzu eskutitzean.

- Gaur egun edozein hizkuntzak ezinbestekoa du teknologia arloan (ere) erabiltzea.
- Appleren lehiakide guztiek (Microsoft, Google, Facebook, Yahoo...) badauzkate euren zerbitzuak euskaraz.
- Eusko Jaurlaritzak berak ere eskabide ofiziala luzatu zion euskara ezartzeko Appleren gailuetan.
- Apple konpainiaren ezaugarrietako bat gutxiengoekin sentiberatasunez jokatzea izan da.
- Appleren irudia hobetu egingo litzateke euskal gizartean.

Idazlana egiterakoan, gogoan izan honako hauek:

1. Eskatutakoari erantzun, ez inguru-minguru ibili edo beste zerbait kontatu.
2. Testu egokia osatu.
3. Euskara egokia, zuzena eta aberatsa erabili.



## Zuzenketa-orria

# Googlek 18 urte bete ditu

**Ruben Abalenzat Google ordenagailua bera da**

Egia

**Ilaski Serranok gogoratzen du Google bako aroa**

Egia

**Maite Goñiren iritziz, ideia batek ekar ditzakeen ondorioak mugagabeak dira**

Egia

**Google bilatzailearen asmatzaileak unibertsitatean ari ziren ikasten munduko aberatsenen zerrendan sartu zirenean**

Gezurra

**Googlek egin zuen Android, alegia, gailu mugikorretan gehien erabiltzen den sistema eragilea**

Egia

**Doodleak dira, zerbait berezia gertatzen denean, bilatzailearen logoaren ordez jartzen dituzten marrazkiak**

Egia

**Donostiako danborrada egunean haren doodlea ezarri zuten bilatzailean**

Gezurra

**Maite Goñik Google unibertsoa esaten dio enpresa horren aplikazio multzoari**

Egia

## Irakurmena

Idatzi hemen irakurgai agertutako ideia berriak:

- (1. Googlek zerbitzuak euskaraz ere ematen dituen ala ez.  
2. Gerta daitekeen mesfidantza, konpainia erraldoi honen aurrean.  
3. Googleren zabalpenak eragin dituzten ondorio kaltegarriak.  
4. Google eta pribatutasuna. Gure datu asko eta asko konpainia honen eskuetan egoteak ekar litzakeen kalteak.)

## Transkripzioa

### Googlek 18 urte bete ditu

ILASKI SERRANO.- Arratsalde on, Maite.

MAITE GOÑI.- Arratsalde on!

I.S.- Bueno, Ruben eta biok Googlei buruz jakiteko nahiaz...

RUBEN ABAL.- Bai, azken batean, ez, Maite? Nork ez du gaur egun ezagutzen Google, bilatzaile bat, baina gaur, gainera, egun berezia da beraiantzako (sic = beraientzat)

M.G.- Bueno, gaur-gaur, ez; orain dela aste pare bat baina esan dut, bueno, aprobetxatu behar dugu Googlei buruz... ze, beti aipatzen dugu. Nik... beti ateratzen da astero-astero berriren bat horrekin lotuta, bestea... baina denak sakabanatuta eta, gutxi gorabehera, ezagutzen goaz, baina iruditu zait momentu egokia esateko, aber, 18 urte Googlek

I.S.- Hori da! Ruben gogoratzen duzu Google bako aroa?

R.A.- Ba, ni oso txikia nintzen sortu zenean. Orain dakit direla 18 urte baina...

I.S.- Horregatik nahi dut esan! Zuk, lanean-eta, Google erabiliko zenuen hasieratik.

R.A.- Bai, bai, niretzako (sic = niretzat) Google da... bueno... ordenagailua erabat Google da.

M.G.- Bai.

I.S.- Bai.

M.G.- Bai, oso-oso esanguratsua da hori, eta benetan da, ze gu hasi ginenean... bueno, ni ja beste adin batekoa naiz; eta bai erabiltzen genuen, eta ni gogoratzen naiz ordenagailurik gabekoa, eta mugikorrik gabeko garaiak eta hori, baina ja ez ditut, egia esateko, oso ondo gogoratzen, e?

I.S.- Eta informazioa entziklopedietan-eta, guk, irratian-eta, orriak etortzen ziren, informaziokoak, eta entziklopedia musikalak-eta genituen eta handik hartu behar dena. Eta gero agertu zen tramankulu bat, sartu izena, eta txa! dena agertzen zena.

M.G.- Oso istorio polita da ze han, unibertsitatean, zientzia konputazionala-edo ari zirela ikasten, ba, pentsatu zuten bilatzaile bat egin behar zutela. Pentsatu gero, ze inportantea den —ni unibertsitate-munduan mugitzen naizela, eta ikasleak dauzkadala alde guztietatik eta hori— ideia batek noraino eraman zaitzakeen, ezta? Ba, kasu honetan oso-oso garbia da. Bi horiek gaur egun dira, ba, munduko aberatsenetako zerrenda horietan azaltzen direnak. Ze, nork ez dauka ia-ia, gaur egun, zerbait Googlen... esan nahi dut... eta ez dut esan nahi nork erabiltzen duen bilatzailea, ze bilatzailea hemen jende guztiak erabiltzen dugu Google, baizik nork ez dauka, ia-ia mugikor bat Android sistema operatiboa duena? Bueno, beste batzuk Iphone edukiko dute, baina gehientsuenak Android sistema operatiboarekin...

R.A.- Hori ere Googlerena.

M.G.- Googlerena da, eta gero bada, hori baino askoz ere begi-bistakoagoa, ezta? Gmail korreoa (sic = posta) gmail hori, ezta? Badaukazue zuek?

I.S.- Bai, bai, bai!

M.G.- 98an, esan dugun bezala, jaiotzen da eta 99an gertatzen da zerbait, niri asko gustatzen zaidana, urtebete dauka enpresak eta lehenengo doodlea. Badakizue zer den doodlea?

I.S.- Bai, badakigu! Ez dakit zein egun, bada, Marie Curiek irabazi zuela Nobela? Marie Curieren marrazkitxo hori Googleren gainean-edo.

M.G.- A, orain bai!

R.A.- Orain bai. Jausi naiz.

M.G.- Ba, doodleak dira, bada, zerbait oso berezia gertatzen denean, logoa Googlerena (Googleren logoa) aldatu egiten dute; eta istorio horrena ere...

I.S.- Donostian danborradan ibili ziren Googleri eskatzen urtarrilaren 20an danborrada jartzea.

M.G.- Bai. Bueno, lehenago, Google baino lehen Altavista eta holakoak erabiltzen ziren, baina ja, gaur egun, prehistoriakoak dira, historiaurrekoak dira, ezta?. Eta gero, ba, hori, Doodlearen istorio horrekin jarraituz, bada, hasten da ja enpresak erosten, adibidez... eta jendeak ez dakit jakingo duen, ikusleek jakingo duten, baina You Tube enpresa ere Googlek erosi du; edo erosi zuen, bai.

R.A.- Esan genezake Google bilatzaile bat baino gehiago dela.

M.G.- Bai, bai, unibertso bat. Bai. Orain, nik horri deitzen diot, ze nik askotan ematen dut formazioa gai horien inguruan eta horrela, eta Google unibertsoa. Berez da... bilatzaile bat izatetik, gero joan zen erosten, ba, You Tube hori, baita Google Maps (ere)... Nork ez du kontsultatu inoiz Google Maps hori?

I.S.- Bizitza salbatu digu!

M.G.- Hori da. Eta gero Google Maps bezala, bada, dauka orain Street view hori, ikusten dela kalea bere horretan. Eta gero dauzka... gero hasten da mugikorrek egiten.

I.S.- Non geratzen da galdetzea? Bentanila bajatu eta, barkatu, non dago... kultur etxea non dago?

M.G.- Nik, oraindik ere, batzuetan...

I.S.-Nik ere bai. Ez galtzeko ohitura onak.

R.A.- Google Maps blokeatzen denean-edo, beti jo behar duzu.

M.G.- Bai.